

Arturo Kanpion Jaimebón Iruñean jaio zen 1854eko maiatzaren 7an. 1808an Napoleonen armadarekin Nafarroako hiriburura iritsi eta Independentzia Gerra amaitu ondoren burnidenda bat ipini zuen ofizial frantses baten iloba zen.

Lehen eskolak bere jaioterrian jaso eta Oñatiko Unibertsitatean Zuzenbidea hasi ondoren, 1876an amaitu zuen karrera, hori Madrilen. Urte horretxetan plazaratu zen bere lehen liburua, *Consideraciones acerca de la cuestión foral y los carlistas en Navarra*, 1876ko otsailaren 7ko data duen lana, hau da, azken gerra karlista amaitu baino zenbait egun lehenagokoa. Foruak arriskuan zeudela igerriz, ahaleginak egin zituen *El Imparcial* bezalako egunkariak Nafarroari egozten zizkioten espainiartasunaren kontrako irainak gezurtatzen, argudioen artean esanez Nafarroako eskualderik foruzaleenak, Mendialdeak alegia, 200 borondatezko baino ez zizkiola eskaini karlisten armadari, eta, aldiz, foruzaletasun gutxienekoak, Erriberak, bostehun gizon inguru armatu zituela.

Lehen lan garrantzitsua izan zen hura kazetari, historilari, literatur kritikari, nobelagile, entsegulari, politikari, gramatikari eta euskalari lanetan, beti ere *Euskalerraren alde* ardatzaren inguruan, gailendu zen nafar idazle honen bizitzan.

ARTURO KANPION (1854-1937)



2



GRAMÁTICA BASCONGADA DE LOS CUATRO DIALECTOS LITERARIOS (1884)

Euskarari buruz Eusko Pizkondeak eman zuen obrarik oparoenetakoa izan zen Kanpionen Gramatika hau, lau euskalki besarkatzen zituen. Hitzazurre bizi batean hizkuntzaren defentsa etnokultural hunkigarria eskaintzen du. Herri baten hizkuntza salbatzeko egindako lana da hau.

Nafarroako Euskara Elkartearen bultzatzaile izan zen, Iruñetik Gorteetako diputatu hautagaitza integristaren barruan, Bizkaitik senatari, Eusko Ikaskuntzaren ohorezko lehendakari, Euskaltzaindiaren sortzaile, Zientzia Moral eta Politikoen Akademiako, Histori Akademiako eta Espainiako Erret Akademiako urgazle, *Euskal Eснаlea*-ren lehendakari, Nafarroako Monumentu Historiko eta Artistikoen Batzordeburu...

Kazetaritzan ere lan garrantzitsua egin zuen: Iruñeko *El Arga* eta *Lau-Buru* egunkari foruzaleen, eta joera katolikoaren zabalkunderako *El Aralar* egunkariaren sortzaileetako bat izan zen; Bilboko *El Noticiero Bilbaíno* eta *La Unión Vasco-Navarra*-n egin zuen lanik; Iruñeko *El Eco de Navarra*; Donostiako *El Pueblo Vascon*; Miguel Loredon portugaletarrak 1876an Madrilan sortu eta euskal aldundiek foruen aurkako erasoei aurre egiteko bultzatutako *La Paz* egunkari foruzalean; karlisten *El Siglo Futuro*n; Barcelonako *La España Regional*en; eta, azkenik, Kanpion gaztearen kazetari lanak argitaratu zituen lehen egunkarian, iganderoko *La Montaña* egunkari errepublikano federalean, non antzerkiari eta musikari buruzko artikuluak idatzi baitzituen Batxilergoa ikasten zuen bitartean.

Garaian garaiko gaiei buruz, ikuspegi politikoaren inguruan nagusiki, egin zituen iritzi-lanek ez zioten Kanpioni galerazi jakinduriazko idazlanak agertzea bere inguruko aldundiak zientifikorik garrantzitsuenetan: *Revista Internacional de Estudios Vascos*, *Euskalerriaren-alde*, *Revista Euskara*, *Boletín de la Comisión de Monumentos Históricos y Artísticos de Navarra*, *Euskal Erria*, *Revista del Antiguo Reino de Navarra*, *Revista de Vizcaya*, *Ilustración de Alava*, etab.

Literatur lanak


Arturo Kanpionen lanak ez dira alderditasunik gabekoak. Idazle honen bizitzaren konpromezua bere literaturgintzan ispilatzen da, eta nagusiki gazteleraz idatzia egon arren, ez zitzaion bere garrantzia aitortu garaiko Espainiako letretan, Miguel de Unamunok eta Emilia Pardo Bazánek goraipatu bazuten ere.

Kanpionek literatur prestakuntza klasikoa izan zuen, eta gainera oso ondo ezagutzen zuen bere garaiko literatura frantsesa. Victor Hugori buruz egin zuen azterlanak (1885) idazle horren lana sakonetik ezagutzen duela erakusten du, eta literaturgile frantsesak munduari buruzko ikuspegi katolikorik ez izatea gaitzestekoa iruditu arren, ez ditu horregatik laudatu gabe uzten haren irudimen joria eta haren lanen zirraragarritasun sakona. Literatura errealista eta naturalista ondo ezagutzen zituen, baina bizitzari buruzko bere ikuspegia katolikoa izanda, ezin zituen literatur joera horiek onartu; hartara, bere literatur lanetan errealitatea isladatu nahi baina literaturaren alorrean edozein arnas determinista edo logiko eta zientifikoegia onartu nahi ez duenaren errealismo ohiturazalea baino ez da agertuko.

Elaberri historikoen ildotik egindako *D. García Almorabid* (1889) lanetik, elaberri ohiturazale eta tesizaleago batera igarotzen gara *La Bella Easorekin* (1907), tartean geratzen delarik *Blancos y Negros* (1898), liberalen eta karlisten arteko liskarrak agertzen dituzten elaberri historiko-politikoaren joerakoa.

REVISTA EUSKARA (1877-1883)

Kanpionen lehen lanak aldizkarietan agertu ziren, eta laster erakutsi zuten haren kazetari-lumaren trebezia. Azken karlistada ondoko aldizkarietan (lehenengo Madrilen, eta Iruñean gero) polemista bortitza izan zen. Revista Euskara-ren arima eta eragilea izan zen, eta berrogeitik gora aldizkari eta egunkaritan idatzi zuen ondoko urteetan.





EUSKARIANA
(1896-1936)
1896tik gerra zibila
arten argitaratuz joan
zen bilduma literario
luze hau, hamabi
emanalditan
banatuta.
Euskaltasunaren
gogoeta historiko-
sozio literarioa da
berau. Batez ere
historia eta euskarari
buruzkoak
darabiltza.

José María Peredaren estiloaren jarraitzaile eta literatura osianikoaren eta Walter Scott-en mireslea izanik, bere joera erromantikoa *Euskariana* osatzen duten kontakizun laburretako askotan azaltzen da. *Gastón de Belsunze*, *El coronel Villalva*, *Los hermanos Gamio*, *Una noche en Zugarramurdi*, *Pedro Mari*, *El último tamborilero de Erraondo* eta *El bardo de Itzaltzu* bezalako kontakizun laburretan ere isurtzen ditu bere elaberrietan ematen dituen ideiak, beti ere kontrakotasun baten inguruan agertzen direnak, euskaltasuna eta atzeritartasuna kontrajarriz; haietan ematen dituen irtenbideak euskal

nortasunaren osagai diren ontasuna, langiletasuna, bakezaletasuna, ohitura, familia, arrazaren garbitasuna, berdintasuna, askatasuna, fedea eta hizkuntzaren aldekoak dira.

Kanpion eta euskara


Arturo Kanpion euskaldun berria izan zen, Zuzenbide ikasketak amaitu arte ez bait zuen ikasi euskara. Hizkuntzaz arduratu ziren euskal intelektualen eta kanpokoen antzera, badirudi normalean ez zuela jasotako hizkuntza erabiltzen, baina, hala ere, ondo menperatzen zuen hizkuntzalaritzaren eta gramatikaren ikuspegitik; hartara, zenbait idazlan txiki egin zituen euskaraz, beste batzuk itzuli, eta literatur lehiaketa askotako epaimahaietan parte hartu zuen.

Bere lehen lan garrantzitsuan bertan, *Consideraciones acerca de la cuestión foral y los carlistas en Navarra*, agertzen da euskararen aldeko bere interesa, euskal nortasunaren osagai funtsezkoa iruditzen baitzitzaien gaztetandik. Mendialdearen eta Erriberaren arteko gatazkan, azkena agertzen da osagai negatibo bezala, lehena, aldiz, euskal bertuteen alderdi ona delarik. Banaketa horrek inplizituki daraman funtsezko elementua Erriberan

euskara galdua egotea da, hain zuzen, eta gertakari horrek, Nafarroako eskualde horretan gaztelaniaren osagai kanpotarra nagusi izateak alegia, familia, hizkuntza, ohiturak eta abar suntsitzen zituen. Kanpionen literatur lan guztietan azaltzen da gatazka hori.

Dirudienez, 1878 ingururako lortu zuen euskara ondo ikastea, bere ikasketak amaitu eta urte gutxitara. *Revista Euskararen* lehen zenbakian, 1878an, gipuzkeraz moldatutako


Orreaga izeneko balada argitaratuz erakusten du. Louis Lucien Bonaparte printzeak bultzatuta, balada hori gipuzkeraz, bizkaieraz, lapurteraz, zubereraz eta Nafarroako 18 azpieuskalkitan argitaratu eta aztertzeraz erabaki zen, eta horretarako Jean Duvoisin, Luis Iza eta Agirre, Mendigatxa eta beste batzuren laguntza izan zuen. Asmo hori 1880ra arte atzeratu zuen, bere euskara maila hobetzarren.



DON GARCIA ALMORABID (1889)
Eleberririk honetako XIII. mendeko kronika ematen digu.
Berau izan zen Kanpionen lehenengo nobela, Iruñeko Nafarrerria auzoko errebolotetan oinarritua (Tolosa: Eusebio López).

Beran, 1880ko abuztuaren 4 eta 5ean ospatu ziren Euskal Jaietan, Arturo Kanpionek eta Hermilio Olorizek gaztelerazko eta euskarazko lanak errezitatu zituzten. *Revista Euskarak* zioen bezala, Kanpionek argi erakutsi zuen bere euskara mailan egin zuen hobekuntza bai eta bere irakurle dohai bikainak ere, Arrese Beitiaren *Azken, agurrak Ama euskeriari eresia* errezitatu.

1881eko Irungo Euskal Jaietan, Kanpionek euskarazko poesia sariak erabaki zituen epaimahaian parte hartu zuen, eta epaimahaietan parte hartu ezezik, euskaraz idatzi ere egiten zuela frogatzeko, Kanpionek Aldundiak euskal elezahar edo kondairarik onenari eskainitako idaztegi bat irabazi zuen *Denbora anchiñakoen ondo-esanak* izenburukoarekin.



BLANCOS Y NEGROS (1898)

Blancos y Negros izan zen, Kanpionen baste lan literarioen artean, kritikak gehien hobetsi izan zuena, Unamuno tarteko. Nafarroaren nortasun historikoa defendatzeaz gain, hizkuntzaren eta hiztungoaren eskubideak era aldarrikatu zituen Kanpionek hemen, erdal eskolaren bidegabekeriaren kontra.


Nolanahi ere, Kanpionek askoz ere kalitate handiagoko literatur lanak idatzi zituen gazteleraz euskaraz baino, eta halaxe aitortu ere aitortzen zuen nafar idazleak, 1910ean, *Euskal Esnalearen* batzarrean, euskara «hizkuntza zoragarria, nire burutazio eta sentimentuak bere adierazpideetan isurtzeko, trebeziaz erabili nahiko nukeena» zela esanez.

Euskal antzerki lehiaketa, euskara katedra, euskal jai askotan eta beste hainbat ospakizunetako epaimahaietan hartu zuen parte.

Kanpion eta gramatika

1884ean hasi zen hilabetero argitaratu ematen euskarari buruz Kanpionek egin zuen obrarik handiena, *Gramática de los cuatro dialectos literarios de la lengua euskara*, Tolosako E. López inprimategiak -euskal lanen inprimatzaile nagusia, Novia de Salcedoren *Hiztegia*, oker etimologikoz betea, argitaratzeagatik Miguel Unamunok gaitzestu zuena-. Argitarapena 1886ko ekainaren 24ean amaitu zuen. Dena dela, lehen emanaldiak 1879-80ko *Revista Euskarán*, *Euskal Errian* 1881ean, eta berriro *Revista Euskarán* 1881-82an agertu ziren. Lanak berak aurrekari bat izan zuen, Donostian, 1883an plazaratu zuen *Ensayo acerca de las*

EL GENIO DE NABARRA (1905)
1884-88etan argitaratzen hasitako saiakera historiko hau, heldutasuneko obra da. Bukatu gabe utzi zigun, baina ondoko hainbat ediziotan osatuz joan zen beti (1914, 1916, 1936, 1942, 1971, etab.). Nafarrei beren historias ulerpen eta harrotasun berri bat emateko idatzitakoa da berau.



leyes fonéticas de la lengua euskara izeneko entseguarekin.

Kanpionen *Gramáticak*, eranskinak eta guzti, 900 orri inguru ditu, eta bere egileak betebeharrak hirukoitz bati erantzunez argitaratzen duela dio: betebeharrak akademikoa (zientzia modernoaren eskariei erantzuteko moduko gramatikarik ez zegoelako), politikoa (bigarren gerra karlistaren ondoren Euskal Herriak jasan zuen «lapurreta basatia» gatik), eta pertsonala ere («zainetan euskal odola eraman eta euskaldunen jatorrizko hizkuntza ez jakiteak lotsatu egin ninduen»).

Hitzaurre moduko atal luze batean euskararen garrantzia goraipatzen du, bere antzinasunagatik historiako ere hizkuntza interesgarria dela esanez, horren bidez mugimenduak eta bilakaerak antzeman baitaitezke indoeuroperatik eratorritako hizkuntzetan dirauten beste hitz batzuekin gonbaraketak egitean. Euskara euskal nortasunaren eta nazioaren bereizgarria den aldetik ikertzen du: «Gaitzen den euskal hitz bakoitzak nazioaren arimaren zati bat darama berekin».



NABARRA EN SU VIDA HISTÓRICA (1914)
Historia, zuzenbidea eta hizkuntza izan ziren Kanpionek Euskal Herriari eta Nafarroari ikusi zizkien nortasun-agiri giltzarriak. Honelako lanetan, iragana aztertuz ere ulertu eta sustatu nahi izan zuen euskal etorkizuna.

Arturo Kanpionen iritziz tamalgarria da espainiarrek euskara ikertzeko interes gutxi izana, hartaz arduratu direnean gutxiesteko izan baita, Aita Mariana, Traggia, Gregorio Mayáns y Siscar-en kasuetan bezala.

Euskararekiko gutxiespen hori, aldiz, atzerriko hizkuntzalari handi batzuen lanarekin aldatuko da; haien artean, Humboldt, Louis Lucien Bonaparte, Julien Vinson, Van Eys, Schieicher, Webster, etab.

Euskal ikerlarien artetik, Kanpionek Aita Larramendiri aitortzen dio euskal gramatikaren sortzailea izatea, eta Pedro Pablo Astarloa, Kardaberaz, A. Xaho, Lardizabal, Duvoisin, Manterola, Aizkibel eta beste hizkuntzalarien lanaren garrantzia goraipatzen du.

Arturo Kanpion euskara hizkuntza aglutinanteen artean sailkatzearen alde agertzen da, eta hizkuntza uraloaltaikoen eta amerikarren artean kokatzen du. Hizkuntzaren hedapenari dagokionez, Louis Lucien Bonapartek bere hizkuntz mapan azaldutakoarekin bat dator, bai eta ikerlari hark euskara zortzi euskalkitan eta hogeitabost azpieuskalkitan banatzeko izan zuen irizpidearekin ere. Kanpionek, herriz herriko sailkapena eginez, euskalkien lurralde-hedapena ikusi eta hizkuntzaren soinu eta artikulazioak, hitzak elkarketaren eta eratorpenaren

bidez sortzeko gaitasuna, bere malgutasuna eta aditz sistema goresten ditu. Euskarazko esaldiaren osakera aztertzean, euskara nagusiki atzizki bidezko hizkuntza dela baieztatu du, bai eta eraikuntza horren bikaintasuna aldarrikatzen ere, osakera ezin hobearen eredutzat hartuak ziren hizkuntza klasikoen perfekzioaren aurrean.

Bere *Gramátic*arekin, Kanpionek hutsune bat bete nahi zuen, euskal hizkuntza ikasten lagun zezakeen gramatika onik ez zegoelako; dena dela, ezin esan daiteke garbitasun pedagogikoa zenik bere helburua, gaur egun irakas-metodotzat hartzen ditugunen moduan, baizik eta azalpen zientifiko zehatz eta zorrotz bat egitea.

Bere eritziz, gramatikaren helburuak ez du hizkuntzari buruzko azterketa teoriko hutsa izan behar, hizkuntzen balioa, berez, beren ohizko erabileran batez ere antzeman eta uler baitaiteke.

Baina Kanpionek ez du bere obra egiten halako asmo zientifiko edo pedagogiko bategatik bakarrik: halako sentimentu nazional batek ere bultzatzen du, hizkuntza baita haren baliorik handiena. Hizkuntzaren aldeko jarrera honek bere benetako izaera jasoko du nazioaren aldarrikapen, eta ohiturak eta hizkuntza suntsitu nahi dituzten legeen aurkako errebolta

EUSKARA BATUAZ
(1920)
Euskalkiak ezagutuz
(bere Gramatika horren lekuko) ongi prestatu-
zagoen Kanpion
hizkuntza nazional
bezala ikusi zuen
euskarari bide zabal eta
batuagoak ere lantzeko.
Euskaltzaindiak, sortu
berri hartan, berari eta
Broussain-i eskatu zien
batasunerako egitasmoa
prestatzeko.



bihurtzen denean: «Inoiz ere menperatua izan ez den gure burujabetasun nazionalaren lekuko bizia eta froga da; eta bereizten gaituen elementu bat da, geure izatasun berezia ematen diguna, eta, hortaz, amarrukeriaz beteriko bideetatik bilatzen eta gauzatzen ari den gure erabateko asimilazioa oztopatzen duena».


Euskal nortasunari 1876ko legeak zekarkion arriskuaz oharturik, indargabetzea eskatzen du, bere ustez euskararen gainbehera eta desagerpena eragingo baititu. Bere esanetan, euskal hizkuntzak ez du

10

desagertu behar, historiaurretiko monumento bat delako, hau da, urruneko garaietatik iritsitako lekuko bakarra, eta, beraz, oso baliagarria delako hizkuntzen bilakaera aztertu ahal izateko.

Turismoa gaztelania ezartzeko bide izatea gaitzesten du idazle nafarrak, euskal ohizko baloreak suntsitzen

dituelako; gauza berbera dio eskolak suntsitzeko eta asimilatzeko duen botereari buruz, eta eskoletan eraztuna erabiltzea eta maisu erdaldunak ezartzea gaitzesten du. Gainera, euskara galduz gero, euskal nortasuna aldatu egingo litzatekeela dio, hizkuntza eta nortasuna guztiz loturik baitaude.



NARRACIONES BASKAS (1923)
Madrilen eman zen argitara Kanpionen liburu hau (Espasa-Calpe, 1923). Kontaketa laburra oso maitea izan zuen Kanpionek.



«KANPION» EUSKALTEGIA

Euskaltzaleen artean bizirik egon da Nafarroan berezi-bereziki Arturo Kanpionen eta haren euskaltzaletasunaren oroitzapena. Iruñean euskaltegi honek darama idazlearen izena.

Louis Lucien Bonaparteren eragina

Kanpionek biziki miresten zuen Louis Lucien Bonaparte printzea, Napoleon I.aren iloba, eta bere *Gramática* eskaini zion. Eskaintza Iruñean datatuta dago, 1884eko ekainaren 30ean, idazle nafarrak 1881erako kontsultatu bazuen ere. Arturo

Kanpion eta Bonaparteren arteko harremanari esker, nafarrak oso ondo ezagutu zuen printzearen lana; horrela, 1904ean, printzearen eskuizkribuak salgai jartzen direnean, lan horiek 350 liberatan erosteko Gipuzkoa, Bizkaia eta Nafarroako aldundiek osatu zuten batzordearen partaide izan zen.



EUSKO
IKASKUNTZA
(1920)
Eusko Ikaskuntzak
bere Biltzar Nagusia
Iruñean ospatu
zuenean (1920),
Kanpion izan zen
bilera-irekierako
hizlaria.

Louis Lucien Bonapartek Iruñeko *Revista Euskararen* parte hartzearekin, bien arteko harremanak areagotu egin ziren, Kanpion baitzen aldizkariaren bultzatzailea, eta horrela nafarrak Europako hizkuntzalaritzaren berri edukitzeko eta bere *Gramátican* hizkuntzalari handi batek laguntzeko aukera ikusi zuen. Bibliografiari dagokionez, Kanpionek hizkuntzalaritza orokorrari buruz frantsesez idatzita dauden obrak ezagutu nahi ditu, baina Bonaparte ez da hizkuntzalari frantsesen oso aldekoa, eta alemanak goستن ditu. Kanpionek kontutan hartu zituen gomendio guzti horiek.

Bonaparteren eta Kanpionen arteko lankidetzaren ondoko urteetan ere jarraituko zen, Kanpionek *Euskal-Erria* eta *Revista Euskara* aldizkarietan argitaratzen zituen lanei buruzko iruzkinekin batez ere. Bonapartek mirespena azaltzen dio gramatikari nafarrari, eta Kanpionek kontutan hartzen dituen oharpen linguistikoak egiten dizkio.

Sabino Aranarekiko desadostasunak

1901eko irailaren 16an, **Euskal Literatur Federakundea** sortu zuen biltzar bat egin zen Hendaian; erakunde horrek Iparralde eta Hegoaldeko idazle eta gramatikariak bildu nahi zituen, batasun literario eta ortografikoaren bidean aurrera egiteko. Euskararen ortografia batzeko oinarriak jartzea zen biltzar horren helburua.

Biltzar horretatik sortutako batzordeak, Sabino Aranek eta Arturo Kanpionek parte hartzen zutelarik, batasun ortografikoan aurrera egin behar zuen, 1902an Hondarribian egin behar zen biltzarrean onartua izateko. Hala ere, aranazaleek beren sistema ortografikoa ezarri nahi zuten, eta haien itxikeriagatik haustura gertatu zen mugaz bi aldeetako idazleen artean, bai eta euskararen arestiko

batasunera arte iraun ere. Aranazaleen irizpideetatik oso urrun egonda, Kanpionek eraso politikoak jasan zituen, bere irizpideak zientziaren ikuspegitik eztabaidatu ordez. Sabino Aranak berak eraso zion arren, Kanpionek ez zien inoiz erantzun eraso politikoei, baina bai, ordea, Aranaren hizkuntz irizpideei.

RIEV aldizkarian gertatu eztabaida luze batean, Arturo Kanpion «*Euzkadi*» hitz berriaren ordez «*Euskal Erria*» izena erabiltzearen alde agertzen da. Baina laster ohartzen da eztabaida horretan Aranaren jarraitzaileek abertzaletasuna eta euskal neologismoak batzen dituztela, eta berehala antiabertzaletzat jotzen dituztela Aranaren etimologiak eta kontzeptu gramatikalak onartzen ez dituztenak; Kanpionek bere burua defenditu zuen, hizkuntzari buruzko ideien kontra bakarrik zegoela erakutsiz, bere ustez zientifikotasunik ez izanik okerrak direlako, edo gaizki erabiltzen direlako; baina argi uzten du ez dagoela Sabino Aranaren ideia politikoen kontra.

Kanpionek gaitzestu egiten du Sabino Aranaren metodo etimologikoa, «irudipen historiko-linguistikoak» sortzen dituelako, berak onartu ezin dituenak. Ez du metodo hori onartzen,

euskararen altxor lexikal guztia hizkuntzaren garbitasunaren kontrako bilakaera baten ondorioztat ematen delako, eta, horrela, bilakaerarik gabeko eta kutsatu gabeko forma zaharrak bilatzera eramaten duelako. Irizpide etimologiko horri barregarria iritzi zion Kanpionek, eta halaxe erabili zuen *RIEVEN* 1910ean argitaratu zuen Un bautizo izeneko sainetean.

13

EUSKO IKASKUNTZAK OMENALDIA (1930)

Beste hainbat kultur erakunderen lehendakaritzarekin batera, Eusko Ikaskuntzako ohorezko lehendakari era izan zen urte luzetan (1918-36). Azkueren ekimenez, Elkarteak 1930ean egin zion omenaldian ageri da hemen, pertsonaia ezagunek inguratuta (Baleztena eta Irujo diputatuak, Altadill, Elortza, Urkixo, Azkue, besteren artean).





EUSKALTZAINDIAK OMENALDIA (1984)
Gramatikaren mendeurrena betetzean, Euskaltzaindiak biltzar berezi bat egin zuen Iruñean Kanpionen ohoretan eta Akademiaren gramatika-lanak sustatuz (1984). Orduko emaitza nagusia Euskal Gramatika-ren lehen liburuki hau da (Iruñea: Euskaltzaindia, 1985).

RIEV aldizkaria

RIEV aldizkariaren lehen aroan, Arturo Kanpionek gogotik parte hartu zuen hizkuntzalaritzari buruzko gaietan, eta hamar lan argitaratu zituen 1907tik 1913ra bitartean.

Lehen lanak, «Sobre el nuevo bautizo del País Vasco» izenekoak, Azkainek *El Pueblo Vascon* «Euzkadi» izena erabiltzearen alde idatzi zuen artikulua bati erantzuten zion. Aranazaleekin piztu zen eztabaidak bultzaturik, Kanpionek «Defensa del nombre antiguo, legítimo y castizo de la lengua de los Baskos contra el soñado EUZKERA» eta «Segunda defensa del nombre antiguo, legítimo y castizo de la lengua de los Baskos contra el soñado EUZKERA» argitaratu zituen geroago.

«Sobre los nombres de la antigua Baskonia» 1907-1908.etan agertu zen beste lan bat da, *Los orígenes del pueblo euskaldún: Celtas, Iberos y Euskaros* izeneko obrako hirugarren zatiko XIV. ataletik atera; hartan, hizkuntzari buruzko hainbat datu jaso eta eztabaidatzen ditu, eta Neolito Aroko, Metal Aroko eta antzinako zibilizazioko ondorengo beste garai batzuetako lexikoa aztertzean, iberieraren aztarna izan litezkeen batzuk aurkitzen ditu euskararen bidez, baina ez da iberismoaren alde ez eta kontra ere azaltzen.

Euskal gramatikaz arduratu zen 1909an argitaratu zuen bere «Nota marginal acerca del presente y pretérito transitivos» lanarekin ere; aldiz, joera filologikoagoa dauka 1912ko bere «Carta abierta al Sr. Director Propietario de la *Revista Intemacional de los Estudios Vascos*», «urki» hitzaren jatorri indoeuroparrari buruz diharduenak, Urkixo deituraren jatorriari buruz gertatutako eztabaida baten ondorioz. Filologikoa da 1920an plazaratutako «La primera etimología baska, hasta hoy conocida» izeneko ikerlana ere, non baiezten baitu ustez Antso Gartzes Peñalengoak (1053-1076) luzatutako diploma batean euskal hitz batzuk aurkitu dituela. Hitz horiek «aker çaltua» dira. Bere iritziz, «caltu» hori, erronkarierazko «zaldu» da, eta beraz, «artalde lo dagoen zuhaiztia» izango litzateke.

Euskararen batasuna

Informe de los señores académicos A. Kanpion y R Broussain a la Academia de la Lengua Vasca sobre unificación del euskera (1920) izeneko txostenak euskara gipuzkeraren, edo lapurteraren, edo bien oinarriarekin batzea proposatzen du. Euskararen gainbeheraren zioak aztertzean, honako hauek adierazten dituzte: euskara alde batera utzi duten goi

mailako klaseei herriak ere jarraitzea, derrigorrezko soldadutza, euskal lexikoaren urritasuna eta euskalki ugaritasuna; euskararen batasuna bizirik dauden euskalkien oinarriarekin egin behar dela proposatzen dute, baina oinarri hartara gainerakoetatik hartutako zenbait osagai moldatuz.

OBRAS COMPLETAS

Kanpionek bere idazketa-lanak hasi eta mende bat geroago ere badu gaurkotasunik; euskal pentsamenduaren klasiko bat bilakatu da. Berrikitan kaleratu dira, lehenengo aldiz gisa honetan, haren «idazlan guztiak» edizio bakarrean osorik bilduta.



15

Euskal hitzen altxorra ugaltzeko, euskalkien arteko truke lexikoa egin behar da bere ustez, horrela hitz berriak sartu eta neologismoak sortu ahal izateko, beti ere zuhurtasunez eta jakinduriaz erabiliz hitz elkarketaren eta eratorpenaren iturri ia agortezinak.

Hortaz, euskalki bat hartzeko eta hizkuntza guztiz berri bat sortzeko aukeren artean, literatur euskalki bat hartu eta eredutzat hartu gabeko besteen elementuekin aberastu nahiago du.

Omenaldiak

Kanpionen osasuna nahiko makaldu zen 1925etik aurrera, eta ikusmena gero eta okerrago izanda, idazle nafarra bere lanean jarraitu ezinik aurkitu zen. Ugariak izan ziren 1937ko irailaren 5ean hil zen arte eskaini zitzaizkion omenaldiak: *Euskalerraren Alde aldizkariarena, Euskal Eснаlea* Elkartearena, Argentinan bizi ziren euskaldunena, Iruñeko Euskal Etxearena, Euskal Herriko Txistulari Elkartearena...

Eusko Ikaskuntzak, R. M^a. de Azkuek bultzaturik, omenaldia egin zion 1930ean bere bizitza guztian zehar euskarari eskaini zion lanagatik. Baina omenaldirik hunkigarriena 1934ean Iruñeko Euskal Eskoletako

umeek eskaini ziotena izan zen. Arturo Kanpionek bere lagunei esaten zienean penaturik zegoela ez zuelako axolagabekeriaz beteriko urte haietan gazteriaren aldeko jarrera ikusten, «Batzuk badoaz, baina besteak ez datoz» esan ohi zuen nahigabeturik. Euskal Eskoletako umeen omenaldian plaka bat eman zitzaion, eta bertan honako esaldi hau agertzen zen: «*Batzuek ba dijoaz, bañan besteok bagatoz*».

Azken euskal poligrafoak izan zuten azken omenaldia izan zen; duela mende bat baino gehiago berak sortu zuten lehen euskal gramatika modernoa; borrokan ibili zen euskara gal ez zedin; kulturean eta politikan kargu politikorik handienak izan zituen; bere ikerlan historiko, filologiko eta antropologiko guztietan zientifikotasuna ezartzen jakin zuen; giza-zientzietan zeukan jakinduria azaldu zuen, bai eta maitasun handia euskal, hizkuntza eta kulturarekiko, euskal nortasunaren beste edozein ezaugarriaren gainetik beti ere euskara jarri zuen lehen intelektualetako bat izan baitzen euskal kulturaren munduan.